

Duela 20 bat egun Urriaren lehenian, bildu dira gure Herriko-Etchean, Donostiri, Donamartiri, Ichturitze, Bastida eta Ayharreko gizonak, « Syndicat Intercommunal d'Alimentation en eau potable de l'Arberoue » egiten dutenak, bai eta ere « Génie Rural »eko gizonak eta Hazparneko Prezetura.

Bilhura hortan erreberitu behar zen Syndikataren burgoa. Denek ainezinean zen bulego bera onhartu dute.

Duela 20 bat egun Urriaren lehenian, bildu dira gure Herriko-Etchean, Donostiri, Donamartiri, Ichturitze, Bastida eta Ayharreko gizonak, « Syndicat Intercommunal d'Alimentation en eau potable de l'Arberoue » egiten dutenak, bai eta ere « Génie Rural »eko gizonak eta Hazparneko Prezetura.

Bilhura hortan erreberitu behar zen Syndikataren burgoa. Denek ainezinean zen bulego bera onhartu dute.

ki jakinaraz dezala Behorlegiko jaun merari. Saristatua izanen da.

SERVICE APRÈS VENTE ASSURÉ

dezala Zounharreta Aintikouer edo Urrutikouer.

« La Section Paloise attaque, ten ahal gireia. Mauléon attaque, à tour de Bortchatu gira erosle editerera eta merkiago saltzera. »

AHATE BASAK

LIBURU BERRI

★ Lehen plamaren segida
zen xanfarin bati mazelako pारे baten emaiteko !
— Eta etxerakoan ere oinez egin huen bidea ?
— Ez ! Andetan !

★
Amak haurrari : « Bainan, Txomin ! Nola jan dituk nik eman piko guziak, hire anaiaz orhoitu gabe ? »
Haurrak arrapostu : « Ama, jaten ari nintzen arte guzian anaiaz orhoitu niz, nik denak jan baino lehen ethorriko othe zen ! »

★
— Hi !
— Zer ?
— Zerbaitek harritzen nik : nola ilea xuria dukan eta bizarra beltxa ?
— Ez duk zeren harri ! Ez-takik bada ileak bizarrak baino hogoi urthe gehiago badituela ?

★
— Hi, Okelerre, hain seme gaztea izaiteko, goixtiar ez-kondu hintzakzen ?
— Bai, goizeko zazpitan !

★
Bazkokari, kofesategi-aintzi-anean jendeketa ederra. Gizon bati heldu zaio aldia, eta apezak galde egiten dio :
— Zer ofizio duzu ?
— Akrobata.
— Zer da hori ?
— Ba, komediantea.
— Eta, hortik bizi zira ?
— Ba, Jauna !
— Komedia hori nola egi-ten duzu ?
— Hara...
Eta gizona ateratzen da, emaiten buruz beheti, eskuen gainean ibilki, bi zangoak airean !
Hori ikusirik, han beha zauden andre guziak ihesari eman ziren..

Apeza jalgi zen kofesategi-
tik andreñ oiuhuka :
— Norat zoazte ?
— Penitentzia hori betetze-
kotan galtzen jaunzterat.

★
« Satorra » igande oroz jo-
aiten zen ihizira, bainan ha-
rek ekarri xoririk ez zuen ne-
hork ikusten Guardianeko os-
tatuan baizik. Haren andreak
pentsamendu asko zerabiltzan,
makur ala xuxen, nork daki ?
— Etzakiat nik hi, ihizi es-
takuruan, zer ari hizan ! Igan-
de guziez oihanera, eta sekun-
dan ez duk deusik ekartzen.
Ba, ihiztarien arteko kostuma
zaharra duk : xakurrari hezur-
rak, andreari gezurrak !
« Satorra »-k egin zuen be-
re baitan : « Hauxe da kome-
dia ! Gure atso hunek zer ez
dik pasatzen burutik ? Egun
batez beharko diat xoriz kon-
tsolatu. »
Ondoko igande-ilhuntzean,
han etxeratu zen « Satorra »
burua gora, xori andana eder
batekin. Sukaldeko mahain
gainerat aurdiki zituen :
— Horra, ea berriz erranen
dunan ez dudala deusik eka-
rtzen !
— Eta hihaurek hilak dituk
xori hauk ?
— Ez, zerak... zeruan dagon
Pepe Zollo zenak hilen zite-
nan...
— Hik ? Ez eni gezurrik er-
ran ! Nik nola hilen hituen ?
Harma etxen ahantzirik joana
hintzan...
— Anda karako ! Oraí ba-
nun, ba... Iduritu zitaitanan
preseski, tiratzean, esku-tar-
tean zerbait falta zitaitala !

★
Eta holako zonbat ixtorio
alegera ! Liburua eros eta ira-
kur. Bada zertaz irri egin !
P. L.

Larrazkena non othe Eskual-Herrian baino ederrago? Mendi eta mendichka mazelak, oiha kaskoak, mahats aihe-
nak eta sorhopilak non urrezatuago?
Ortzegunari ortziralea darroiko larrazkenari negua, supazter aroa. Zoin laket, mendebala zirimolan marrumaz ari delarik, haren hats izigarriak etche guzia inharrosten duela, zoin laket ttinkia supazter chokoan suaren intzira gocho eta eztiari egoitea !
Hala zaukan duda mudarik gabe Ostopegiko nausi cha-
harrak, bai eta nausi gazteak ere. Han zauden segurik biak, buruz buru, supazter abi chokoetan, zangoak ikatz gorrien ondoraino luzaturik.
Etzen ez gero nornahi Ostopegiko nausi chaharra. Bache-
nabarreko herri pollitenetarik batean sortua, gazterik joan
zen Ameriketarat, sakelak arin, bainan gogo bihotzak aberats.

Hogoi-ta hamar bat urthe han lanarekin borroka berak zakien nola higturik, bere sor-lekurat itzulia zen, berak zio-
naz hiltzerat, bai eta nik uste han bildu ontasun handien gozaterat, ezen Amerikano izen aberats, bainan nehor guti asezten duenarekin, bazuen handik ekarria diru meta bat joria eta gizena.
Bere herritarrer erakutsi ere zuen etzela zarpak hutsik jina, Ostopegiko jauregi ederra erosi zuelarik, herriko etche-
ko-alaba aberatsenarekin ezkontzeko.
Ezkontza hortarik seme bat sortu, Joanes. Hitz dau-
tzuuet semeak aitak baino alki eta galtza gehiago higtu zuela ikastegietan. Buru onekoa baitzen, kasik josteta eta begirik uspeldu gabe, lege-gizon zen hogoi-ta bortz urthe-
tako.

— Non gaindi ibilia chira egun, aita ?
Etziren sekulan elgarrekin ibiltzen, nahiz semeak hala nahiago zuken. Joanesek zakur hura hilez geroz, aita seme-
ari batere etzen fida : erbi batentzat hartu balu Joanesek?
— Non gaindi ibilia? Ez urrun ez ; haize tzar horrek lotsatzen nichu, ez dazkotchut ez gero oraino ene buruko azken biloak utzi nahi ! Oihanak buluzten dituen haizeak, gizon chahar baten burua ere buluz dezakechu aise !
— Atzo ziniochun ahate basa andana bat ikusi chinuela.
— Ikustea eta atchemaitea biga baitira, Joanes.
— ... eta egun etchinelat bat bederen hil gabe etchean sartuko ?
— Gizentzeko utzi ditichit, chuk gerochago hiltzeko. Semeak chichta senditurik, bichi bichia :
— Aita, ez othoi nitaz trufa, elgarren bethe gituchu berdin.
— Ez, Joanes, ez, chu nausi, egundaino ez dichit nik zakurrik ere hil !
Hitz horiek, nahiz gochoki erranak, dupinaren estalgia altxatu.
— Aita, hamar luis jokatzan dauzkichut ahate basa bat ekartzen dutala bihar !
— Chu haurek hilik ?
— Bai, bai, ni haurek hiliik.
— Zer duchu dirua pocholu sakelan ?
— Joka hor, aita, ez bachira beldur segurik.
Eta bi gizonek, besoak luzaturik, topatu itchindiak lekuko.

Muthiko gazte lerdena, patchada gaitzekoa bezain aho ederra, bazterrak mintzoko dira oraino hartaz, urthe guti barne.
Bainan bego hortan eta bide nabarretan errebelatu gabe, lot gaiten gure ahate baser, hauk norapeit hegaldatu baino lehen.
Aita semen loria ihiziá. Goizetik arats, chichpak sorbal-
datik dilindan edo besopean, bizpahiru zakur eder ihausika eta ikusi belhar floka guziet usainka eta singaka, Ostope-
giko eremu guziak eta herriko gehienak kurriturik, aratseko sartzen ziren unhatuak, lehertuak, ezinduak, bainan alpor-
tchak maiz bezain ardura zimur.
Aitak bederen bazuken estakuru : begiak ahulduak, hatsa laburtua, etzen handi deus ez ekarririk ere, ihizirik, ez eta itzalik ere, etzuenaz geroz ikusten.
Bainan semeak ? Mihi gaichtoek zioten erbi bat behin, nik uste zakurrekin ados, zangoen artetik fricht*! iragan zako-
la. Dena den, alportcharen haztak etzakon sorbalda handirik akitzen.
Hastean, berak ziona egun batez, chichpa zuen ahula eta tcharra ; bainan biharamunean, ihiziaren orde, bere zakurretarik bat pilaz gora arthikirik etcherat hila ekarri zue-
larik, nahirik ere tresna zuela ahula nehorie etzezaken saka.
Denik ere beraz aita nausi zuen ; harek bederen ihizirik ez hilik ere, zakurrak uzten zituen bizirik. Eta hori semeari batere ez pollit.
Negu arats hartan beraz, supazter chokoan gochoki zan-
go-muthurren berotzen ari zirelarik, aitak pipa hori eder bat ahoan, semeak puro erraztundun bat ezpainen artean, solasa bethi bezala ihizirat lerratu. Atcheman ihiziez ez mintzaturik ere, egin urhatsez eta lasterrez, ikusi erbiez eta ahate basez ar zitazken.

Biharamun goizean goiz, bere chichpa onsachko garbi-
turik, galtzak belaueraino larruzko galtzoinetan tinkaturik, bere lumako zakurra aintzinean, hunek muthurra apha eta beharriak aphaigo, jali zen Joanes etchetik eta Uharteko errekarri behera hartu.
Chichpa bizkarrean, ezen ilhun kukua zen oraino eta nik uste ahate basak deskantsuan lo, bazoan Joanes kasik erdi-lo hura ere, aitarene zirtorrotchek bihotza ausikitzen ziotela,
Ametsetarik bezala, Eihera-ttipiko uretik andanaka ikus-
ten zituen ahate basak hegaldatzen, lepho hegalak luzatuz... Pan !... Pan !... Luma burrusta bat airean, bi ahate urean !... Hunat, Ttamela !... Hor ! hor !... Ausik ! ausik !... Hunat, ekar hunat !... Eta gochoki pherekaturik, alportcharen barnean ezartzen zituen, buruak kampoko alderat dilindan ! Eta gero etchean sartze hura ! Aitak behin bethikotz trufa musikak sartuak ! Ha ! nik ez dichit egundaino zakurrik ere hil ! Eta holako ahaterik hil duchia behin ere ? Eta holako hamar luis-
sik galdu noiz ? Oi ! zer Joanesen ametsetako ahateak !
Iguzki hits zurpail bat agertzearekin, gure Joanes Eihe-
ra-ttipiko ur hegian zen zabal etzanik, barrandan. Zakurra jo harat jo hunat ibilki intziraka, erasia gorrian. Bainan ahate itchurarik ere nehon ez ageri. Ez bide dira goiztiarrak ahate basak.
Bepetan saingak samindu eta sumindu. Oraikoaan bagituk, Joanes, beharriak erna, luza begiak ! Han zagon Joanes begiak harmatuak, chichpa eskuetan, erhia chakurraren gainean. Ahateak, ahateak !... Pin ! Pan !... Bolbora lanho bat... ihausi parrasta bat... tafla tafla zakurra urean igerika... lumarik nehon ez... ahaterik are gutiago. Joanes chutitzearekin, azken perdiunak ari ziren urerat erortzen !

Holako parada eta ahateak hutsegirik kechu, goiz osoa ibili zen Joanes barrandaz barranda, hemen oren bat, han bi oren.
Eguerdi irian, etche guzietarik urrun baitzen, berekin ereman otruntzari lotu, jateko gutizia izpirik gabe.
Oren laurden baten buruko berriz chutik zen. Aratsalde gehiena bere ahate basen ondolik debaldetan ibilirik, ilhuna goizik jausten baita ba neguan, etcheko alderat hartu zuen, zazpi galtza-gorri bezain kechu, ez baita guti.
Nardatua heldu zen beraz, ametsetako ahateak, erran nahi eta ametsetako lukainkak alportcharen barnean ttinkia kokaturik, heldu gizagaizoa urari behako bat ere eman gabe.
Gauza huni nola ohartu zen ere, nik ez dakit, bainan bepetan chut chuta gelditu zen. Ba othe zitaken ? Hantchet uraren erdi erdian igerika ahate andana bat... sei... zortzi... hamar !
Hauche zuten kopeta ! Chichpa eskuan, sasiz sasi bere burua ontsa gordez, ihiztaria heldu eta, acholarik etzuten hartaz chazko haizeaz baino gehiago. Onsa maltso zauden basak izaiteko ; zakurrak ere sainga guti.
Joanes ordukotz hurbilduche zart ! bere bi tiroen igor-
tzerat zoalarik, horra non muthiko kochkor bat jalitzen zakon hesi baten gibeletik. Zortzi. ortzi burrunban zangoetarat ero-
ri balazkio ere, etzen Joanes gehiago harrituko.
— Mutikoa ! Zer mila sorgin ari hintzen hor ?
— Ahate horier so, orizu !
— Ahate horier so ? Zer... zer !... etche ahateak baitira horiek ?
— Bai, jauna, bai ! Hurbil zite ikusteko.
Hala zena ezin uka futcho ! Ehun libera emanen zituen Joanesek gaizki ikusteko. Bai bainan ehun libera ez baitira aski ahate maltsoen basatzeko.
Joanes gaizoaren hechua ! Hamar ahateak zoin gogotik, zer atseginekin, zer lorietan artikiko zituen zorroz gora, behar zena pagaturik ere !
Bere hasarrea zerbaiten gainean behar zuela hautsi :
— Errak, puttil, to hamar libera, bi ahate hiltzerat utz nezak othoi.
Muthikoak hamar liberakoa sakelan sartzearekin :
— Bai, jauna, bai eta gogotik.
Pan ! Pan ! karranka izigarrian zortzi ahate ihesari eman ziren... eta biga urean gelditu. Bi ahate gaicho horiek Joanesek nola othe atcheman zituen egundaino ez dut ontsa hartu. Nik daukat, arras hil nahiak, berak joan zirela perdiunen biderat.
Dena den, toki hartan ura ez baitzen barna, muthikoak ekarri zaizkon bi ihiziak bai eta alportcharen barnean sartzen ere lagundu.
Joanes bazoan jadanik han harat, bihotza haatik den mendren bat kilika. Arrengurachka hori bebar zuela nolaz-
peit haizatu, buthikoari buruz itzuli zen berriz eta urruentik oiuhuka :
— Errak, muthil, bi ahate hil ditiat, bainan hire amak zer erranen dauk orai ?
— Amak ? deusik ez.
— Etzakiat ! Bi ahate gutiago ikusi-eta...
— Etzitzun guriak !
— ! ? !